# BAINO LEHEN ...
# "THE BREADWINNER"

**SINOPSIA:** *Deborah Ellis* idazle kanadarraren eleberrian oinarrituta, Pakistango eta Errusiako errefuxiatuen kanpamenduetan emakume eta neskatilak elkarrizketatzen eman zituena hilabeteak. *Nora Twomey* zinemagileak zuzendutako *The Breadwinner* filmeak animazioaren bidez kontatzen du, erlijio-fundamentalismoaren inposizioaren ondoren, *Afganistango* neskatila eta emakumeek bizi duten errealitate dramatikoari buruzko kontakizun boteretsua.

*The Breadwinner Parvana*ri buruzko kontakizun lazgarria da, Afganistango hiriburua den Kabul hiriko auzo xume batean bizi den hamaika urteko neskato afganiarra. Talibanen erregimena ezarri aurretik, Parvanaren aita den *Nurullah*, historia maisua zen eskolan, baina gaur egun hirian postu ibiltari txiki bat du. Erregimenaren defendatzaile sutsu batekin izandako liskar baten ostean, Nurullah hiriburuko ekialdeko espetxe batean sartu dute. Horrela, Parvanaren familiaren testuinguru sozial berrian aurrera egiteko bidea hasten da, aitaren behartutako urrunaldiaren ondoren, hiru emakume eta haur bat baino ez direlarik. Bereziki neskatoen eta emakumeen giza eskubideen urraketa sistematikoa inposatzen den giro batean, Parvanak etxeko agintea hartuko du, eta aukera bakar gisa mutil bihurtzea izango du, familia eusteko eta aita askatzen saiatzeko helburu argiarekin.

- Trailerra ikusi nahi duzu? https://www.youtube.com/watch?v=Oc0DGXN6Rwk

Jarraian, filma ikusi ondoren landu beharreko HIRU GAI NAGUSIAK aipatuko ditugu:

1. **HAURREN ESKUBIDEAK ETA NESKATXA-NERABE-EMAKUMEEN GIZA ESKUBIDEAK.** Emakumeek eta nerabeek munduko hainbat testuingurutan jasaten duten eskubide-urraketa ikusaraztea. Parvana protagonistaren eskutik, filmean islatzen diren giza eskubideen urraketak azpimarratuko dira, eta, horrela, horien egungo egoerari buruzko hausnarketa kolektiboa sustatuko da hainbat errealitatetan, ikasleen artean kontzientzia eta hausnarketa sortzeko.
   - Costa Ricako INAMU erakundeak (Emakumeen Institutu Nazionala) egindako ikus-entzunezko material hau ikusteko gonbita egiten dizugu. Material horretan modu didaktikoan azaltzen da emakumeen giza eskubideen kontzeptualizazioa eta testuingurua: https://www.youtube.com/watch?v=Sq78kKyUyGc

2. **SORORITATEA, GIZARTEA ERALDATZEKO FUNTSEZKO TRESNA GISA.** "The Breadwinner" filmean kontatzen den errealitate bortitzaren aurrean, sororitatea dago alternatiba gisa, elkartasunerako, aldaketarako eta gizartea eraldatzeko tresna gisa. Parvanak eta haren inguruko emakumeek zeharka ehuntzen dute bizitzeko eta jarduteko beste modu hori, egoera gogorrari irtenbide guztiak bilatzeko.
   - Zer da "sororitatea"? https://www.youtube.com/watch?v=_Ui0F-niaHo
   - Jarraian, Alicia Lópezek zuzendutako "Sororitatea: Cortemos la violencia" film laburra ikustera gonbidatzen zaitugu. Bertan, Boliviako testuinguruan emakumeen artean dagoen sororitatearen adibide praktiko bat erakusten da: https://www.youtube.com/watch?v=jJyYhLmNM5w

3. **KULTUR TRANSMISIOAREN GARRANTZIA AHOZKO TRADIZIOTIK.** Ahozko tradizioa herrien identitate eta kultura-transmisiorako metodo gisa identifikatzea eta kontzeptualizatzea, arreta berezia jarriz emakumeek ahozko tradizio horretan duten rolaren garrantzian, eta hitzak nortasun historiko-kulturalaren transmisore gisa duen balioan. Nurullah, Parvanaren aita, eta protagonista bera erreferentziatzat hartuta, film luzean zehar Afganistango herriaren historia islatzen da narrazio kulturaletik, baita indarrean dagoen testuinguru sozialaren inguruko hainbat gogoeta ere.
   - "Ahozko tradizioa, gizartean eragiteko motorra" den proiektu polit hau begiratu, mundu osoko istorioak eta ipuinak biltzen dituena. "Pentsatzen dut, gero ekiten diot": https://www.youtube.com/watch?v=AwEFkQXyI6A

Bestalde, zeharka, hainbat gai landu ahal izango dira, hala nola emakumeenganako indarkeria motak, intersekzionalitatea, elkartasuna, familia barruko harremanak, erresilientziaren kontzeptua, gatazken konponbidea edo irudimenaren balioa, besteak beste.